



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarte.  
Francisco Michelena Celayeta.  
Ezekiel Loiarte Santesteban.  
José María Michelena Erasun.

2016ko martxoaren 11n, 18:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKUREKO AKTAK ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

## **2. ZENBAIT ESKARI.**

1. Aho batez erabaki da, 50 euroko diru-laguntza ematea Herri Urratsi.

2. Aho batez onetsi da adierazpen hau, SEADen aldarrikapenaren 40. urteurrena dela eta:

“2016ko otsailaren 27an, 40. urteurrena bete zen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Zubietako Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde- euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUKo Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak froga berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarietan.

Hori guztia dela eta, Zubietako Udalak ondorengoa adierazten du:

1. Berretsi egiten du RASDeKo gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEk hala aitortua.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

2. Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultza ditzatela beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.

3. Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4. Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxa dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.

5. Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.

6. Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.”

### **3. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016ko urtarrilaren 29koa, B.D. jaunaren erroldako inskripzioaren iraungipena adierazi zuena.

- 2016/07 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 29koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena Inauterietarako.

- 2016/08 zenbakia, 2016ko otsailaren 3koa, T.A.ri lizentzia eman ziona, *Matxinea etxeko* baratzen eroritako paretaren berregiteko.

- 2016/09 zenbakia, 2016ko otsailaren 4koa, A.S.ri lizentzia eman ziona, 2 poligonoko 63 partzelan (*Albarrena* parajea) hobi septikoa jartzeko.

- 2016/10 zenbakia, 2016ko otsailaren 8koa, P.X.M.ri agindua eman ziona, *Azkatean* egiten ari zen obrak bertan behera uzteko.

- 2016/11 zenbakia, 2016ko otsailaren 10ekoa, P.J.S.i lizentzia eman ziona, *Parazelaieta baserriko* atarian porlana bota eta losa berritzeko eta atzealdean ere losa jartzeko.

- 2016/12 zenbakia, 2016ko otsailaren 15ekoa, J.J.H.i lizentzia eman ziona, *Albarrengobordan* zenbait obra egiteko, askaldegi-aterpeko erabilera emateko helburuarekin.

- 2016/13 zenbakia, 2016ko otsailaren 19koa, espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, J.J.H.n aurka, obrak egiteagatik beharrezkoa den lizentziarik gabe.

- 2016/14 zenbakia, 2016ko otsailaren 19koa, P.X.M.ri lizentzia eman ziona, *Azkatea* etxeko baratzen karratuko porlanazko zola eraikitzeke.

- 2016/15 zenbakia, 2016ko otsailaren 19koa, espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, P.X.M.ren aurka, obrak egiteagatik beharrezkoa den lizentziarik gabe.



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2016/15A zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa, “BIDEEN KONPONKETA ETA GARBITZEKO LANAK, BASERRIETAN SEINALEAK JARTZEA, INGURUNEA MANTENDU ETA HOBETZEKO LANAK. UDABERRI ETA UDAKO SASOIAK” izeneko lanak onetsi zituenak diru-laguntza eskatzeko.

- 2016/15B zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa, “LANGILE LANGABETUAK KONTRATATZEA ZUBIETAKO ERROTA EKOMUSEORAKO (PUBLIKOARI ARRETA ETA INSTALAKUNTZEN ETA INGURUNEAREN MANTENIMENDUA). UDABERRI ETA UDAKO SASOIAK” izeneko lanak onetsi zituenak diru-laguntza eskatzeko.

- 2016/16 zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa, *Azpilde* parajeen oihan-aprobetxamendua ateratzeko T.O.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/17 zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa, *Parazelaieta*, *Erdozelaieta* eta *Añegieta* parajeetan oihan-aprobetxamenduak ateratzeko M.C.B.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/18 zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa, F.E.ri lizentzia eman ziona, *Xapadoa etxeko* atzealdean dagoen porlanazko zola berregiteko.

- 2016/19 zenbakia, 2016ko martxoaren 4koa, J.L.ri lizentzia eman ziona, *Ferminenea etxean* zenbait obra txiki egiteko (eskuineko fatxadan harrotu den pareta zatia konpondu, euri-urak bideratu, beheko leihoetan burdinesiak jarri eta atzealdeko terrazari kanaloia jarri eta ateari pertsiana).

- 2016/20 zenbakia, 2016ko martxoaren 4koa, F.J.M.ri lizentzia eman ziona, *Larrañekobordan* eroritako harrizko pareta berregiteko.

- 2016/21 zenbakia, 2016ko martxoaren 4koa, R.C. eta A.M.ri lizentzia eman ziona, 10,44 metro karratu bereizteko hiri lurzoruko 4 poligonoko 137 partzelatik.

- 2016/22 zenbakia, 2016ko martxoaren 7koa, R.E. eta J.L.L.ri lizentzia eman ziona bereizketak egiteko 2 lursail mugakideetan, elkarren artean trukatu eta elkartzeko gelditzen den jatorriko lursailari (2 poligonoko 148 eta 145 partzelak).

- 2016/23 zenbakia, 2016ko martxoaren 10ekoa, J.J.H.n aurka hasitako espediente zigortzailea bukatutzat eman zuena.

- 2016/24 zenbakia, 2016ko martxoaren 10ekoa, P.X.M.ren aurka hasitako espediente zigortzailea bukatutzat eman zuena.

## 4. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernuak eman dituen baimenak larreak erretzeko—Udalari, J.F.M.ri eta P.S.i—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —T.O., S.A. eta J.L.L.ri—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —M.M.S., I.G. eta J.L.nak—; B.I.i bidalitako errekerimendua, errekeren ondoan landatutako intxaur ondoak ateratzeko; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Mendiko Zerbitzuaren ikuskapen-akta, 4 poligonoko 342 partzelan egindako lur mugimenduei buruzkoa; Mendiko Zerbitzuko zuzendariaren 147/2016 Ebazpena, otsailaren 29koa, arbol batzuk botatzeko baimena eman zuena,



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

herriko aizkora apostuetan erabiltzeko; Euskara Zerbitzuko 2015eko memoria eta 2016ko plangintza.

2. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak eman zuen 37/2016 Foru Agindua, otsailaren 16koa, Maderas Enbor SLk jarritako altxadako errekurtsua ukatzen duena. *Arrataburu* parajeko oihan aprobetxamenduaren azterketa-akta onetsi zuen Ebazpenaren aurka jarri zuen errekurtsua. Ondorioz, Maderas Enbor SLk 440 euro ordaindu behar dizkio Zubietako Udalari, egin gabe geratu ziren alertzen garbiketa lanak Udalak egin behar izan bai zituen. Aho batez erabaki da, Maderas Enbor SLri eskatzea zor dituen 440 euroak ordaintzea.

3. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Baztan Bidasoa Turismo Elkarteko bilera: aurrekontua onetsi zen eta langilearen lanaldia luzatu.
- Etxebizitza Babestuen Patronatuko bilera: pisu bat libre dago eta konponduko da alokatzeko.
- Malerrekako Eguna maiatzaren 28an ospatuko da Iturenen.
- Gizarte Zerbitzuko Batzordeko bilera: prebentzio kanpaina bat egingo da herriko besten aurretik.

**Gai Zerrendatik kanpo**, presazkoa dela aitortuz, egur loteak etxean entregatzeko aurkeztu den aurrekontu bakarra irakurri da: *Maderas Santesteban SLk* eskaini du tonako 35 euro gehi BEZa kobratzea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da egur loteak atera eta entregatzeko lanak adjudikatzea *MADERAS SANTESTEBAN SL* enpresari, tonako 35 eurotan (gehi BEZa).

## **5. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.